



# Baionan kantuz



# KORRIKANTUZ

2009ko MARTXOaren 28, 29a

## Arrosako zolan

Arrosako zolan, kantu zirimolan nahiz eta telebixtan ez gaituzten modan Euskararen garra, lokarri azkarra, gau ilun honetako gure artizarra **Zazpiehun langile, sutsu ta ekilez oraina ta geroa ez ditaizke berez, kontzertu hunen bidez, musika ezkiez, euskal izen ta izana, betikotz bat bitez**

Koka ta hanburgesa, euskaldun baldresa gustua galtzea ere zer dugun errexa! Kendu nahi digute, bihotz ta bertute, izaki klonikoak egin nahi gaituzte. **Jo dezagun bada, goraki aldaba multinazional hioen herria ez gara, bretoi ta kortzikar, kanak okzitandar nor bedera izaiteko har dezagun indar**

Munduko herrien ta irrati librean bilgune goxoa guk dugu urtero hemen uhainen ildoan, asmoak geroan elkarren ezagutza daukagu gogoan. **Munduko erronkak, herrien borrokak bildu gara hausteko zapalkuntzen sokak dantza ta irria, kantuz ilargia, gau hontan zoriontsu da Euskal Herria**

# BAIONAN KANTUZ IKASTOLEKIN

## 1 GORA TA GORA

**Gora ta gora beti  
Bai gora lapurdi  
Euskera bizi gaitu  
Eta bizi bedi**

Gorantza doa agudo kapitala  
Eta Lapurdi beti dago apala  
Aldrebesturik dago mundu  
zitala  
Konformatzen ez bagara  
Ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizi modu normala  
Lurra lantzeko aitzurra eta pala  
Lanaren truke kobratzen erreala  
Benetan da miserable  
Euskaldunon jornala

Munduan ezin bizi diteke hola  
Merkatuetan dena gora doala  
Etxera eta zopa guztiz argala  
Kriseiluen olio  
Ez da postre formala

Jabeek dute kontzientzi zabala  
Kakastu dute gure lurren azala  
Baina Lapurdi ez da hain  
zerbitzala  
Burruka garbian dago  
Hori da printzipala

## 2 BAGARE

**Arabian bagare  
Gipuzkun bagera  
Xiberun bagire  
Ta Bizkaian bagara,  
baita ere Lapurdin ta  
Nafarran.**

Guztiok gara euskaldun  
guztiok anaiak gara  
nahiz eta hitz ezberdinez  
bat bera dugu hizkera.

Herri bat dugu osatzen  
eta gure zabarkeriz  
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera, bagire,  
bagara  
euskera azkartzeko  
oraintxe dugu aukera  
Bagare, bagera, bagire,  
bagara  
Euskadi askatzeko oraintxe  
dugu aukera

## 3 ABERRIAREN MUGAK

Nire aberria lurra bezain zaharra da  
Bainan ez da lurra bakarrik.  
Haizeak bezala inguratzen nau eta  
Lotzen, askatzen naularik.

Nire aberria suaren antzekoa da  
Beti bera, berria beti  
Epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean  
Ta erretzen ere badaki.

**Aberriaren mugak euskararenak  
Gure baitan daude gehienak  
Eusakara zabalduaz lau haizetara  
Zabalago egiten gara.**

Nire aberria harrizko herria da,  
Hitzezkoa ta hitzezkoa.

Altzairuzko txakolin ardo zurezkoa  
Eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da  
Oroimenean arindua  
Itsas laminen baten erdoilezko kantu  
Etorkizunez fosildua.

## 4 AGURE ZAHARRA

Agure zahar batek zion  
bere etxe aurrean  
Goizean goiz lantokira  
irtetzen nintzanean,  
Ez ahal dek gazte ikusten  
gure hesola zein dan  
Desegiten ez badugu  
bertan galduko gera

**Bainan guztiok batera  
saiatu hura botatzera  
Usteltzen hasia dago ta  
laister eroriko da.  
Hik bultza gogor hortikan  
ta bultza nik hemendikan  
Ikusiko dek nola nola  
laister eroriko dan.**

Bainan denbora badoa  
nekea zaigu hasi,  
Eskuak zartatu zaizkit  
eta indarrak utzi  
Usteltzen ba dago ere  
karga badu oraindik  
Berriz arnasa hartzeko  
dezagun alkarrekin.

Agure zaharra falta da  
gure etxe ondolik,  
Haize txar batek hartuta  
ereman du hemendik.  
Haur batzuk ikusten ditut  
eta inguraturik  
Aitona zaharraren kanta  
nahi diet erakutsi

## 5 EPERRA

Eperrak baditizü  
bere bi hegalak  
Bai eta bürün gainin  
kokarda ejer bat  
**Zük ere balinbazünü  
gaztetersün ejer bat  
Neskatilen gogatzeko  
bilo holli pollit bat.**

Amorosak behar lüke  
izan lotsa gabe  
Gaiaz ebiltzia  
ez üken herabe  
**Egünaz ebiltzia  
desohore leike  
Txoriak ere oro  
haier soz dirade.**

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti  
Eia! atzamenen nianez  
lili ejer hori  
**Azkenian atzaman düü,  
oi bena tristeki  
Lümarik ejerrena  
beitzaio erori.**

## 6 ZAZPIAK OIHAL BATETIK

Mundu guztiak aditutzen du  
Euskaldunaren negarra  
Alde batera nahiago nuke  
Ez banintz hemengotarra.  
**Enpeinatzea ez bada libre,  
Alferrik dugu indarra.  
Hau da txoria gari tartean  
Goseak egon beharra.**

Antzerki huntan lau pertsonaia  
Ta jokolari bakarra  
Arbolak berak erakusten du  
ostoa eta adarra.  
**Enpeinatzea .....**

Sutan pizturik darrai oraindik  
Sugai berriz lengo gerra  
Oharkabean ez zen mintzatu  
Txirrita poeta zarra.  
**Enpeinatzea .....**

Zazpi ahizparen gai den oihala  
ebakirikan erditik  
Alde batera hiru soineko  
Utzirikan lau besterik.  
**Guraiziakin berezi arren  
Bakoitza bere aldetik  
Ezagutzen da jantzi girela  
Zazpiak oihal batetik.**

Oihal bera da gure jantzia  
Sortu gintuzten unetik,  
Ez du munduak kemenik sortu  
Kentzeko gure soinetik.  
**Guraiziakin .....** ( bis )

## 7 Azken dantza hau

Oh oh oh .....

Azken dantza hau maitia zurekin  
Nahi zintuzket ereman nerekin.  
Bainan gaurko xedea, ezin daike betea,  
Ba dakit nik ere bihar dela joaitea...

**Bego pena hau, itzuliren naiz  
Bai berriz Euskal herrira!  
Bego urte hau, etorriko naiz,  
Betikotz zure ondora.**

Oh Oh Oh .....

Azken dantza hau ez da sekulako  
Zin egina dut zin egin betiko,  
Hemen gure lurreen bizi behar dutala !  
Hori ez bada, hil hotz jar nadila !

## 8 LORETXOA

Mendian larrartean  
Aurkitzen da loretxo bat  
Aurrean umetxo bat  
Loretxoari begira

Loreak esan nahi dio  
Umetxo aska nezazu,  
Jaio naiz libre izaiteko  
Ta ez loturik egoteko

**Umetxoak ikusirik  
Lorea ezin bizirik  
Arrantzak kendu nahi dizkio  
Bizi berri bat eman**

Orduan izango baitu  
Indarra eta kemena  
Orduan emango baitu  
Ugari bere fruitua.

## 9 DAMA GAZTE

Dama gazte xarmant bat  
jiten zaut bixtara  
Iduritzen baitzeraut zeruko izarra!  
Ama batek hazteko, hori zerbait bada;  
Gure salbatzaileak kontserba dezala!

"Gau on gizon gaztea, konpañiarekin  
Gostu du egoitiak itxant bat zurekin;  
Badakizu mintzatzen errespeturekin,  
Jainkoak har zitzala  
hil-ondoan berekin"

"Ene maite pollita non ote den bizi,  
Bazinakikeia zuk haren zerbait berri?  
Aspaldi ikustera joan nahia beti...  
Errozu ene partez, milaka goraintzi."

"Ez zenukeia hobe zuhaurek joaitea,  
Nitaz igorri gabe komisionea ?  
Samurturen ote den ez zaitela fida;  
Zato enekin eta,  
biak joanen gira. "

## 16 DOALA.....

Lehen hatsetik **doala**  
 Lehen hitzetik **euskara**  
 Lehen harritik **Ikastola**  
**Doala lau haizetara....**

Hazi ta irin **doala**  
 Adinez adin **euskara**  
 Egina egin **Ikastola**  
**Doala lau haizetara...**

**Doala, euskara doala**  
**Hitzetik hortzera**  
**Mundu zabalera**  
**Doala, euskara doala**  
**Lau haizetara....**

Argi karreun **doala**  
 Mihian lehun **euskara**  
 Gure ontasun **Ikastola**  
**Doala lau haizetara....**

Zabal ta oso **doala**  
 Lurraren leiho **euskara**  
 Munduari so **Ikastola**  
**Doala lau haizetara....**

**Doala.....**

Nork daki nundik **doala**  
 Hiri herritik **euskara**  
 Nahikeriatik **Ikastola**  
**Doala lau haizetara....**

Baionan bihotz **doala**  
 Zuhaitz ta aihotz **euskara**  
 Egoitzez egoitz **Ikastola**  
**Doala lau haizetara....**  
 Egoitzez egoitz **Ikastola**  
**Doala lau haizetara...**

## 17 GUK EUSKARAZ

**Guk Euskaraz**  
**Zuk, zergatik ez !**

Euskara putzu sakon,  
 eta ilun bat zen, (berriz)  
 eta zuek denok, ur gazi bat,  
 atera zenuzten handik nekez

Orain zuen birtutez,  
 zuen indarrez (berriz)  
 euskara itsas'urdirin eta zabal  
 bat izanen da eta guria da.

## 14 BEGIAK FARREZ

Begiak farrez farrez,  
 bihotza nigarrez  
 Halaxet joaiten, nintzan maitia,  
 zuganik doloz ai, ai, ai ( bis)

Tralaralara .....

Xoriñoa kaiolan,  
 egoiten da trixte  
 Ni ere ez naiz, kontsolaturen,  
 zu ikusi arte ai, ai ai (bis)

Nere maite pollita,  
 zu nun zira bizi  
 Joan den aspaldi, , ene maitia,  
 ez zaitut ikusi, ai, ai, ai (bis)

Palazio eder bat  
 haitzaren gainian  
 Ez da euririk, sartzen maitia,  
 ateri denian ai, ai, ai (bis)

Arrosarikan ez da  
 arantzarik gabe  
 Ez eta ere, amodiorik,  
 penarikan gabe ai, ai, ai (bis )

## 15 ERRIBERA

Erribera, Erribera  
 zure landen zabalera  
 ortzi-muga den hartan  
 mugatzen da

Zure lur emankorretan  
 ixurtzen diren asmoak  
 gogotsu hartuko ahal ditu  
 lur gozoak

Zure gaztelu zaharrek  
 gorderik duten aintzina  
 hats tristetan mintzo da  
 haien mina

**Ho ho hohohoho.....**

Orma zahar arraituetan  
 xoriak dira kantatzen  
 mendetako lo geldia  
 salatzen

Nafarra anai zaharra  
 kondairaren lehen sustarra  
 bego higan arbasoen  
 amets hura

**Ho ho hohohoho .....**

## 12 HEGOAK

**Hegoak ebaki banizkio**  
**Neuria izango zen (bis)**  
 Ez zuen aldegingo.

Bainan horrela  
 Ez zen gehiago xoria  
 izango  
 Bainan horrela  
 Ez zen gehiago xoria  
 izango

Eta nik, xoria nuen maite  
 Eta nik, xoria nuen maite.

**La la la.....**

## 13 IDUZKI DENEAN

Iduzki denean,  
 zoin den eder itzala!  
 Maitia, mintzo zira,  
 plazzer duzun bezala  
 Egiten duzula  
 Mila disimula.  
 Iñorantz zirela;  
 Erraiten duzula  
 Bertzetik naizela.  
 Faltsuki mintzo zira.

Zazpi urtez beti  
 jarraiki zait ondolik,  
 Erraiten zautala,  
 ez dut bertze maiterik;  
 Hitzer fidaturik  
 Nago tronpaturik  
 Gaixoa trixterik  
 Ez dut eiten lorik,  
 Ez jan edan onik,  
 Maitia, zure gatik.

Oi! ene maitea,  
 nik ere zure gatik,  
 Pasatzen dizut nik,  
 zonbeit sabeleko min  
 Ezkonduz zurekin,  
 Samur ait'amekin  
 Behar nindeite jin;  
 Ez dakit zer egin,  
 Ez eta nola jin,  
 Nik neur'etxeokekin.

Oi! ene maitia,  
 nun duz'izpirituia,  
 Fediaren jabe  
 aita deraukazuia?

**Atxikazu fedia,**  
**Maita bertutia,**  
**Libra kontzientzia;**  
**Munduko bizia**  
**Labur da, maitia,**  
**Ez zaitela kanbia!**

## 10 AITA SEMEAK

**Aita-semeak tabernan**  
**daude,**  
**ama-alabak jokoan.**

Berriz ikusi beharko dugu  
 behi gizona auzoan,  
 berriro ere ez da faltako  
 trapu zaharrik kakoan.

Eta lapurrek ohostu dute  
 guk gendukana etxean,  
 eta gu gaude erdi biluzik  
 beti iñoren menpean.

Geurea dugu erru guztia,  
 geurea dugu osoan,  
 ez iñori ba errua bota  
 Euskal Herria hiltzean.

Baina gaztea naiz eta daukat  
 etorkizuna eskuan,  
 ez zaigu hilgo Euskal Herria  
 ni bizi naizen artean.

## 11 EñAUT BIDEGORRI

Jakin duka berria,  
 Eñaut Bidegorri hil dela  
 Atzo dena irria,  
 nork erran egun hilen zela  
 Lurreko itzulia harek egin  
 .... loreak bezala.

**Etzian aberatsa,**  
**etzian pobrea,**  
**Bainan haren bihotza,**  
**zer urrezko kalitza.**

Gurekin herriz herri,  
 pestaz ibili duk frangotan  
 Nexkek harentzat begi,  
 hain zukan trebe fandangotan  
 Oto batek moztu dik,  
 gaixo Eñaut ... hogoi urtetan

Eñauten goraintziak,  
 zoin bero zitaizken orduan  
 Gazte lagun guziak  
 bai gintuen bere goguan  
 Gu hemen utzirik'e', bera  
 balitz ... orai zeruan.

Adixkide bat zer den  
 nik bihar dut hori jakinen  
 bihar bakar bakarrik  
 Eñaut gabe bainiz izanen.  
 Ai Eñaut adixkide, hik  
 baninduk .... hire ganatzen.

## 18 Auzoan zer berri den

Auzoan zer berri den,  
dugun egin kantu  
Zonbaiten berriekin,  
nola ez harritu  
Andrea erori-ta,  
senarrak minartu  
Mixelengo Batitak  
adarrak baditu

**LA LA LA LALA ....**

Apeza ari zauku  
prediku alkitik  
Denak beira gaitzen  
gormant izaitetik  
Bera nola den bizi  
jendeak badauki  
Xardina utzi eta  
tira oilaskotik

Biden arimatzea  
hitzeman ondoan  
Gure mera lo dago  
bertzerik gogoan  
Berak bide ederra  
badu alartzean  
Bertzeak goait daudela  
zangoak lohian

Brentsak gure mahatsa  
zoin untsa tinkatzen  
Ez da jus guti baizik  
patsean gelditzen  
Perzetura halere  
brentsari nausitzen  
Gure moltsa guziak  
osoki tturintzen

Herriko mutxurdinak  
ele eta ele  
Mezatik jali-ordu  
jenden jorrazale  
Nehork ez galdaturik  
hain ziren tetele  
Mendekatzen dirade  
pika eta bele

Ez nahiz haien pare  
guhaur bilakatu  
Hobeko dugu orai  
ixilik gelditu  
Ez dugu ez gezurrik  
kantuan sakatu  
Bainan egiak ere  
mugak behar ditu

**LA LA LA LA LA**

## 19 NEVADARAT JOAN NINTZEN

Nevadarat joan nintzan  
dirurikan gabe,  
Handik itzultzekotan maitia,  
bortz miliunen jabe.

Urteak joan ziren  
on ta tzar nahaste,  
Gure fortuna heiekin  
eta dena berriz haste!

**Ai, ai, ai, ai, ai!**  
**Ametsaren lana!**  
**Ait'amen erranetarik**  
**barna ibili bagina!**

Begia zorrotz eta  
memoria argi,  
Ez den ez den tokian,  
maitea, aztaparra garbi.

Moltsa arin dut, bainan,  
aberats gogua!  
Nere fortuna zare, maitia,  
nere sosegua!

## 20 OIGU HEMEN

**Oi gu hemen**  
**Bidean galduak (hiruz)**  
**Heriotz minez (bis)**

Gizonen itzala luzea,  
negarrez, haizea gauean  
Arbolak, erroak airean,  
heriotza da.

Pobreak kalean bilutsik  
barnea esperantzik gabe  
Doinua, basoko tristura,  
ilunabarrez.

Nundikan ezinaren mina,  
zergatik errekan iluna  
Egurra, kolpeka landua,  
bide hustuak

## 21 - TXALAPARTA

Tiriki-trauki  
Hiru ta lau dira zazpi,  
Xurruxumurru  
Bat batean dira urrun,  
Tiriki-trauki ezker eskubi  
Bien artean dago zubi,  
Hots bare-bare hor leiho sare  
Hiru ta lau dira bi ( 2 aldiz )

Tiriki-trauki .....  
.....Hiru ta lau diraa - -  
**BAT, BAT, BAT, BAT**

## 22 ITURINGO

Ituringo arotza Erramun Joakin  
Hasarre omen zaude  
zeren degun jakin  
Santurik ez laiteke  
fidatu zurekin  
San Kristobal urtuta  
joariak egin **He!**

**LaLa La.....**

Arotzak erran dio bere andreari  
“ Urtu behar dinagu;  
ekarran santu hori “  
“ Gizona zertaz zoaz,  
bekatu da hori “  
“ Etzionagu erranen  
sekulan nihori “ **He**

Ituringo garaile Ramuntxo Joakin  
Hasare omen zira  
zeren dudan jakin  
Konfesa zaite ongi erretorarekin  
Ez dute zer fidatu  
Santuek zurekin. **He !**

Kobrezko Santurikan  
inon bazarete  
Egoten ahal zarete  
hemendik aparte  
Baldin arotz horiek  
jakiten badute  
Joarien egiteko  
urtuko zaituzte **He !**

## 23 ARDIAK LERRO

Ardiak lerro lerro,  
mendi maldan doatzi  
Haize fifira batek  
deituz gorago beti  
Ibai zola erreketan  
denak lotan sartzen dira  
Zoin amultsua zautan  
gaua jausten mendira

**Oooh, oh, oh**

Egunaz ixil bazen,  
gauaz pizten mendia  
Belar punta bakotxak  
nasai dakar bizia  
Gaztain ondota kukiak  
joiten dauku soinua  
Eta izarrekilan  
pestan dugu zerua

Orroituko naiz beti  
Arradoiko bazterrez  
Horrarat so gelditu  
bainaz maiz bi begiez  
Bainan orain ezin dut  
zangorik han finkatu  
Bizi bihurri hunek  
bainau hortik urrundu

## 24 XALBADORREN HERIOTZEAN

Adixkide bat bazen  
Orotan bihotz bera,  
Poesiaren hegoek  
Sentimentuzko bertsoek  
Antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari  
Bakardadez josia,  
Hitzen lihoa iruten  
Bere barnean irauten  
Oñazez ikasia.

**Nun hago, zer larretan**  
**Urepeleko artzaina,**  
**Mendi hegaletan gora**  
**Oroitzapen den gerora**  
**Ihesetan joan hintzana.**

Hesia urraturik  
Libratu huen kanta,  
Lotura guztietatik  
Gorputzaren mugetatik  
Aske senditu nahirik.

Azken hatsa huela  
Bertsorik sakonena,  
Iñoiz esan ezin diren  
Estalitako egien  
Oihurik bortitzena.

## 25 ZAZPI EUSKAL HERRIEK

**Zazpi Euskalerriek**  
**bat egin dezagun**  
**Guziak beti, beti,**  
**gauden gu Eskualdun.**

Agur eta ohore  
Eskual-herriari:  
Lapurdi, Baxe-Nafar,  
Xibero gainari;  
Bizkai, Nafar, Gipuzko  
eta Arabari,  
Zazpiak bat besarka  
lot gaiten elgarri.

Haritz eder bat bada  
gure mendietan,  
Zazpi adarrez dena  
zabaltzen airetan.  
Frantzian, Espainian,  
bi alderdietan:  
Hemen hiruta han lau,  
bat da zazpietan.